

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

## 5776

*EBAZPENA, 2021eko urriaren 27koa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta iragartzen baita Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Aginduan aurreikusitako laguntzen ematea. Agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2021eko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak, eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia.*

2021eko irailaren 13an argitaratu zen EHAAn Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrietako kontzejueri paisaiaren ekintza-planak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu zen EHAAn argitaratu eta hilabetera, hau da, urriaren 13an, dirulaguntzak ematea arautzen duen aipatutako aginduaren 7.1 artikulua arabera, Horrela izanik, eskabide hauek sartu dira:

|   | Udala       | Proiektuaren izenburua                                                                     | Aurrekontua, BEZ-ik gabe |
|---|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|
| 1 | Asparrena   | Recuperación y adecuación de fuentes y manantiales en el Parque Natural de Aizkorri Aratz. | 22.510 €                 |
| 2 | Astigarraga | PAP: Infraestructura Verde y servicios ecosistémicos de Astigarraga                        | 29.600 €                 |
| 3 | Barakaldo   | PAP: entorno fluvial urbano-rural del Cadagua (N-634 – Puente del Diablo)                  | 33.000 €                 |

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2021eko irailaren 8ko Aginduaren 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, urriaren 20an horretarako balorazio-epaimahaiak eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikuluko horren 3. apartatuan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa. 2021eko urriaren 21ean, balorazio-epaimahaiaren eraketa eta osaera adierazten dituen akta udal eskatzaile guztiei jakinarazi zitzaion, abstentzio-eskubidea eta errekusatzeko eskubidea bermatzeko, dirulaguntza hauek arautzen dituen aginduaren 9.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Aipatutako aginduaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 300.000 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 16. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ez BEZa ez bestelako zergak ezin izango direla diruz lagundu.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, agindu arautzailearen 9.3 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, proposamen horretan jasoko dira ukatzeko diren eskabideen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak.

Azkenean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Aginduaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2021eko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak, eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia), eta horretarako eraturako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiarako ekintza-planak idazteko dirulaguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejueri, adierazitako zenbatekoan:

|   | Udala       | Proiektuaren izenburua                                                    | Balioespena | Dirulaguntza (BEZik gabe) |
|---|-------------|---------------------------------------------------------------------------|-------------|---------------------------|
| 1 | Astigarraga | PAP: Infraestructura Verde y servicios ecosistémicos de Astigarraga       | 5           | 26.640€                   |
| 2 | Barakaldo   | PAP: entorno fluvial urbano-rural del Cadagua (N-634 – Puente del Diablo) | 6,4         | 29.700€                   |

Bigarrena.– Paisaiarako ekintza-planak egiteko dirulaguntzak ukatzea ondoren zerrendatutako udalei, eta kasuan kasu ukatzeko arrazoiak:

|   | Udala     | Ukatzeko zergatia                                      |
|---|-----------|--------------------------------------------------------|
| 1 | Asparrena | Ez ditu bete agindu arautzailearen 1. eta 2. artikulua |

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztientzako jakinarazpen-balioa izan dezan.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan jarri ematea jakitera.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburordea,  
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.